



Goikoerrota etxebizitza

Aldakerak: Uriberrota
Ahozkoa:



43° 9' 59"

2° 33' 29"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casa Molino rustico titulado de arriba, sin que se exprese su numeración, radicante en jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con lo que ocupa el edificio, cauce y presa, ciento noventa estados poco más o menos, equivalentes a setecientos veinte y dos metros sesenta milímetros de cabida... y se compone de su maquinaria, cuadras, divisiones y habitaciones..."

DJE, 2/240. or. (1870)

Okango kofradiaren baitan aurkitzen dugun Uribe auzoan errota bi daude *Ẓalduerreka* ur emarian: *Bekoerrota* (**Ikus Bekoerrota**) eta *Goikoerrota*. Azken hori izen desberdinekin ezagutu izan da azken mendeetako dokumentazioan. Horrela, 1825eko polizia-errolan *Molino de Uribe* moduan agertzen den bitartean, urte batzuk geroago *Molino de arriba* (1870, DJE, 2/240. or.) moduan agertzen da jabego-eskritura batean. XX. mende hasieran Udal-errola batean *Urive Molino* (1910, BUA, RU) moduan agertzen da, eta 1967ko erroldan, aldiz, lehen-dabizikoz euskarazko izena agertzen zaigu, *Goikoerrota* (1967, BUA, CE), hain zuzen ere. Auzotarren artean, *Uribeko errota* edo *Uriberrota* moduan ezagutzen da.

1800. urtearen inguruan eraikitako baserri-errota da. Harlangaitza erabili zuten berau jasotzeko, eta harlandu ederra, aldiz, etxearen kantaletan, leihoetan eta atarteko arkuaren eta janbetan. Fatxada nagusia oso modu sinplean eratu zuten, bi isurkiko teilatuaren azpian. Indarra erdialdean jarri zuten, hau da, arku, gainera leihoa eta ganbarako txikia. Lehenengo solairuko izkinetan, berriz, leiho bana dauka, eta behean, bakarra, *Belakortu* (**Ikus Belakortu**) baserri erroten gertatu antzera, itsua baita behealde guztia.

toponimia

Izen honen esangurak ez du aparteko azalpenik behar baina interesgarria da errota hitzaren historia. Hitza latinetik hartu genuen euskaldunok eta gaztelaniazko *rueda* hitzaren jatorri bera du, *rota*. Hala ere, mendabaldeko Euskal Herrian bolu hitza erabili genuen lehenago eta hor dugu Bolibar, esaterako. Latinetik hartzea logikoa da erromatarrek heldu aurretik bestelako errotak, eskuzkoak, erabiltzen ziren eta.